

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 707/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen duena Aguraingo Udala-
rekin hitzarmen bat izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio
eta obren gaineko zerga ikuskatzeko**

Arabako Foru Aldundiak eta Aguraingo Udalak uste dute axolazkoa dela elkarlanean jardutea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ikuskatzea dela-eta.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) 106.3. artikuluan ezartzen du toki erakundeak eskudunak direla euren zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, baina atea zabalik uzten du eskumen horiek beste administrazio batzuek bete ditzaten lankidetzak formulak erabiliz.

Lankidetzak horren ezaugarri nagusia da borondatezkoa dela, eta, hori bideratzeko, behar diren administrazio partzuergo edo hitzarmenak izenpetu behar direla. Formula nagusia hitzarmena da, zeren partzuergoa eratzeak beharrezkoa baita lankidetzak ezin formalizatzea hitzarmen bidez; gainera, partzuergoa eratzeak, beharrezkoa da eraginkortasun ekonomikoaren aldetik baliabide ekonomikoak efizientzia handiagoz esleitzeko aukera ematea.

Tributuen arloan, Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), 8. artikuluan, udal erakundeen eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bidezko lankidetzak aipatzen du, tokiko tributuak eta toki erakundeen zuzenbide publikoko gainerako diru sarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzearen arlokoa.

Bestalde, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa), 5. artikuluan 5. idatz-zatian, aukera ematen du toki erakundeen eta foru aldundiaren arteko zergak aplikatzeko lankidetzak formulak ezartzeko.

Esparru juridiko hori eta Udalak esleiturik dituen eskumenen kudeaketaren eraginkortasuna dira kausa jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan Arabako Foru Aldundiaren eta Aguraingo Udalaren arteko hitzarmen bidezko elkarlana justifikatzeko.

Kontuan hartuz 52/1992 Foru Arauaren 8.7 artikuluan xedatutakoa (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa), zeinak ahalmena ematen baitio Diputatuen Kontseiluari bere eginkizun betearazlea baliatuz lankidetzak hitzarmenak egiteko Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego, probintzia eta herri administrazioekin.

Ikusirik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Haren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea lankidetzak hitzarmen bat izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Aguraingo Udalaren artean, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz. Hitzarmena erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari hitzarmena bera eta hitzarmena betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ